| | baserri-inguruneko bideen gaia sakonago, baina Gardean ere jorra daiteke, auzoan baserri-ingurunea handia delako.<br>**Txaro:** Auzokoei eskertu die konpontzeko ahalegina egin izana. PSE-EE alderdiak Gobernu Taldeari eskatu dio proiektu integral bat egin dezala urtez urte egoerarik okerrenean dauden eremuak asfaltatzen joateko urteroko ekarpenak egiteko. Bere alderdiak horren alde bozkatuko luke, betiere, lehentasuna emanda okerren dauden kaleei. Ondo legoke kale guztien eta duten egoeraren zerrenda izatea.<br>**Jon Ander:** Esan du orain egin behar den aurrekontuen zirriborroaren araberakoa izango dela dena.<br><br>**Auzokoa:** Aurreko Auzo Batzarrean jorratutako gaien zerrenda bat aurkeztu du, akta honi erantsi zaiona. Udalari eskatu dio gauza batzuk ezin badira egin, auzokideei esateko zergatik ezin den eta zer kudeaketa egin den, herritarrek errazago egin dezaten jarraipena eta gauzak ahatz ez daitezen. Jarraian, planteatutako baina egin gabeko kontuak zerrendatu ditu:<br><br>• Santa Kurutzen, geralekuaren pareko trenbidearen bidegurutzetik gora doan errepidean dagoen hodia estaltzea. Hodi hori handia eta arriskutsua da eta kontua da kendu edo txikiago egin behar dela.<br>**Juanferrek** adierazi du egin beharreko gauzen zerrenda dagoela eta gutxi barru egingo dela.<br>• Santa Kurutzeko erreka garbitzea (Zabaletik Santa Kurutzera): Zuhaitzak eta sastrakak garbitu beharko lirateke noizbehinka.<br>**Juanferrek** gogora ekarri du Uraren Euskal Agentziari dagokiola erreka garbitzea eta Udalak ezin dituela bertako zuhaitzak eta landareak moztu. Hondakinak baino ezin dira kendu handik, duela sei hilabete eurekin sinatutako hitzarmenean hori baino ez | profundidad en la asamblea del entorno rural, pero se puede tratar también en Gardea porque aquí hay mucha zona rural.<br>**Txaro**: Agradece que los vecinos hagan el esfuerzo de arreglarlo. El PSE-EE ha pedido al equipo de gobierno que haga un proyecto integral para que año a año se vayan asfaltando las zonas que están en peor estado con aportaciones anuales. Su partido lo apoyaría, dando siempre prioridad a las calles que están peor. Sería bueno tener una relación de las calles y la situación en la que se encuentran.<br><br>**Jon Ander**: Dice que todo depende de cómo se haga ese borrador de presupuestos que hay que realizar ahora.<br><br>**Vecino**: Presenta un listado de asuntos de la anterior asamblea de barrios que se adjunta a esta acta. Pide a su vez al ayuntamiento que si hay cosas que no se pueden hacer, se les comunique a los vecinos el por qué y las gestiones realizadas, para que los vecinos puedan hacer un seguimiento más fácilmente y las cosas no queden en el olvido. A continuación se enumeran las cuestiones planteadas que no se han realizado:<br>• Cubrir caño de la carretera que va desde el cruce de la vía del apeadero hacia arriba en el barrio de Santa Cruz. Dicho caño es grande y peligroso, y se trata de quitarlo o hacerlo más pequeño.<br>**Juanfer** comenta que está en la lista de cosas a realizar y que en breve se hará.<br><br>• Limpieza del regato de Santa Cruz (de Zabale a Santa Cruz): Periódicamente abría que limpiarlo de árboles y maleza; entran por las ventanas de las casas.<br>**Juanfer** recuerda que la limpieza del regato es competencia de la Agencia Vasca del Agua y que el ayuntamiento no puede cortar árboles ni vegetación en él. Se puede solo limpiar de residuos porque hace aproximadamente 6 meses se firmó un convenio con ellos para este |

| | | |
|---|---|---|
| | zelako jaso. Landareak moztea eska dakieke, baina, une honetan, ezezkoa eman dute. Orain, azterlan bat egiten ari da Uraren Euskal Agentziari bidaltzeko eta ikusiko dugu zer onartzen duten. Azterlan horren barruan, Santa Kurutzeko erreka ikertu da, argazkiak erantsi dira eta asmoen berri eman da, baina, gaur egun, ezin da ezer egin.<br><br>**Jon Anderrek** esan du Uraren Euskal Agentziari etortzeko eta arazoa ikusteko eska dakiokeela.<br>**Txarok** erantsi du auzokide gisa ere Uraren Euskal Agentziarekin biltzea eska daitekeela.<br>**Natxok** planteatu du Uraren Euskal Agentziari bilera eskatzea auzokideen izenek eskatuta eta Udala ere han izan daitekeela.<br>• Autobide igaro aurretik, errepideko edukiontzien aurrean dagoen aparkalekua. Izkinetan Zabalera igotzea edo handik jaistea eragozten duten autoak uzten dituzte eta, azkenean, edukiontzien aurrean, auto batzuk aparkatzeko erabil litekeen zelai txiki bat dago.<br>• Katuxa zubiko zebrabidea (zubiaren eta pabiloien artekoa): Santa Kurutzeko geralekutik lanera datorren jendearentzat.<br>• Auzoen seinaleztapena bidegurutzean: Katuxa jauregian auzoen izenak seinaletan daude, baina gero trenbidearen zubia zeharkatzean jendeak ez daki nora joan. Beste seinale batzuk jar litezke han, Gardeagotxi, Zabale eta Santa Kurutz auzoen izenekin, dena hobe definituta geratzeko.<br>• Arekak garbitzeko eta fumigatzeko egutegia: Arekak garbitu egiten dira, baina ez da fumigatzen, beraz, sasiak indar geroz eta handiagoz ateratzen dira: Auzokidearen ustetan, fumigatu beharko litzateke, hain bizkor atera ez daitezen.<br><br>• Baselizarako bidea asfaltatzea: Errekatik | propósito solamente. Se les puede solicitar el corte de vegetación pero su respuesta en este momento es no. Ahora se está preparando un estudio para mandar a la Agencia Vasca del Agua y veremos a ver que aceptan que se haga. Dentro de ese estudio está incluido el arroyo de Santa Cruz con fotos y lo que se quiere hacer, pero hoy por hoy no se puede hacer nada.<br>**Jon Ander** dice que se puede solicitar que la Agencia Vasca del Agua venga y vea el problema.<br>**Txaro** añade que como vecinos también se podría solicitar una reunión con la Agencia Vasca del Agua.<br>**Natxo** plantea solicitar una reunión con la Agencia Vasca del Agua a petición de los vecinos en la que esté también el ayuntamiento.<br>• Aparcamiento frente a los contenedores en la carretera justo antes de pasar la autovía. Se dejan coches en las esquinas que obstaculizan la subida y bajada de Zabale y al final, enfrente de los contenedores, hay una pequeña campa que se podría acondicionar para que aparquen unos cuantos coches.<br>• Paso de cebra en el puente Katuxa (entre el puente y los pabellones): Para la gente que viene del apeadero de Santa Cruz a trabajar.<br>• Señalizaciones en el crucero de barrios: En el Palacio de Katuxa hay señalización con los nombres de los barrios, pero luego al pasar el puente de la vía la gente no sabe para dónde ir. Se podría poner allí otra señalización poniendo el nombre de los barrios Gardeagotxi, Zabale y Santa Cruz para definirlo mejor.<br>• Calendario de limpieza de cunetas y fumigar: Se limpian las cunetas pero no se fumigan por lo que los matos salen con más fuerza en poco tiempo. El vecino considera que abría que fumigar para evitar que salgan en un período tan corto.<br>• Asfaltado camino de la Ermita: Cuando se |

| | | |
|---|---|---|
| | baselizara doan zubiko bidea egin zenean ez zen ubiderik jarri eta ura bidearen erditik jaisten da, bideko guztia arrastatzen. Beheko aldean, auzokoek errekara doan ubide txiki bat egin zuten. | hizo el camino del puente del regato a la ermita no le pusieron canalizaciones y el agua baja por el centro del camino arrastrando todo. En la parte de abajo los vecinos hicieron una pequeña canalización hacia el regato. |
| | • Zabalerako bideko kutxatilak garbitzea: hondakinez betetzen ziren eta euria egiten zuenean putzu handiak sortzen ziren.<br>• Ermitaren hegoaldeko aldean kale-argiak ipintzea, eremua ilun geratzen delako.<br>• Santa Kurutzeko parkeko belarra moztea: Auzokoak belarra mozteko plan posible bat proposatu du (15, 24, 35, eta 46. asteak)<br>• Santa Kurutz baselizaren inguruko parkean animaliak bazkatara eramatea debekatzeko kartelak: Bada abereak gauetan bazkatzera ekartzen eta goizean goiz jasotzen duen jendea, baina dena hondakinez beteta geratzen da eta kaparrak daude. Zumeltzako bidean ere hori gertatzen da. Udalari eskatu zitzaien parkearen hiru sarreretan bazkatzea debekatzeko kartelak ipintzeko.<br>**Jon Anderrek** esan du abereak ez daudela parke guztietan debekatuta. Hala erabakitzen denean baino ez dago debekatuta. Arrañoko eremu batzuetan abereak sartzea onartze da mantentze-sistema gisa eta beste Udal batzuek ere sistema hori erabiltzen hasi dira hiriko berdeguneen mantentze-sistema gisa. Debekatzea erabakitzen bada, seinaleak ipiniko dira, baina kontua ez da dena seinalez betetzea. Kontrolik gabeko abeltzaintza ere ezin da onartu, ezin da nahi dena egin. | • Limpieza de arquetas camino Zabale: Las arquetas se llenaban de deshechos y cuando llovía quedaban unas balsas grandes.<br>• Poner farolas en el costado sur de la Ermita, porque esa zona queda oscura.<br>• Corte de hierba en el parque de Santa Cruz: El vecino marca un posible plan de corte de hierba (semana 15-24-35-46)<br>• Señales de prohibido pastar en el parque alrededor de la ermita de Santa Cruz: Hay gente que trae el ganado a las noches a pastar y lo recorre a las mañanas pronto, pero queda todo lleno de deshechos y hay garrapatas. Esto también pasa en el camino de Zumeltza. Se solicitó al ayuntamiento que en las tres entradas del parque se pusiese un indicador de prohibido pastar.<br>**Jon Ander** comenta que el ganado no está prohibido en todos los parques. Está prohibido cuando así se decide. Hay zonas en Larraño que se permite que haya ganado como sistema de mantenimiento y en otros ayuntamientos también se está introduciendo ganado para mantenimiento de espacios verdes urbanos. Si se decide prohibirlo se pueden poner las señales pero no se trata de llenar todo de señales. Tampoco se puede consentir un pastoreo descontrolado donde cada uno haga lo que quiera. |
| | **Auzokoa:** Ñabardura bat egin nahi du: kirol-proiektu aurreratuenak ez dira Gardeako beharren araberakoak, herriko beharren araberakoak baizik. Uste du ondo dagoela horiek egitea eta justifikatuta | **Vecino**: Quiere matizar que los proyectos deportivos que parece que son los que más avanzados están, no responden a las necesidades de Gardea si no a las necesidades del pueblo. Cree que está bien |

| | | |
|---|---|---|
| | daudela.<br><br>**Auzokoa:** Gardeagotxiko gorozki urei buruz galdetu du.<br>**Juanfer**: Azaldu du iaz begiratu zela eta nahiko arazo daudela. Ez daki Gardeagotxi bezalako baserri-eremu batean hiri-zerbitzuak ipin daitezkeen. Konponbide onargarri gutxi dago eta ponpatze bidezkoak oso garestiak dira. Horregatik geratu zen gaia egonean.<br>Saneamenduaren gaiari berriro hel dakioke kiratsaz kexu zen beheko etxeari arazoa konpontzeko, han baitaude arazorik handienak. Eremu horretan hodiak sartuta (laburtzat jo daitekeen zati bat bakarrik), 40-50 zentimetroko konektore batekin etxe horretan kiratsa ken liteke, baina Gardeagotxi osoan saneamenduaren arazoa konpontzea zaila da. Horrekin ez da arazoa konpontzen, inor bizi ez den zelai batera desbideratzen da.<br><br>**Jon Ander:** Bertako auzokideekin bilera bat egitea proposa daiteke konponbideak bilatzeko.<br>**Auzokoa:** Esan du horrela arazoa leku batetik bestera eramatea baino ez dela egiten, zelai horrek jabe bat duelako. Beste Auzo Batzar batean konponbide gisa proposatu zena araztegi txikia ipintzea izan zen.<br>**Juanfer:** Gehitu du hori baserri-eremua dela eta, beraz, jabeei dagokiela hori egitea. Une honetan, euri eta gorotz urak estolda nagusi berera doaz eta hori ere banandu beharko litzateke.<br><br>**Auzokoa:** Errekan, 11. eta 13. zenbakia duten eraikinen arteko zatian, ez dago barandarik eta arriskutsua da umeentzat.<br>**Jon Ander:** Uraren Euskal Agentziari bidaltzeko proposamen artean sar daiteke hori, ibai bazterrak agentzia horren eskumena direlako 5 metrora arte eta, gauzak instalatzeko, 18 metrora arte. Prozesu motela da, baina asko hobetu da, Uraren Euskal Agentziak ikusi egin duelako | que se hagan y están justificados.<br><br>**Vecino**: Pregunta por las fecales de Gardeagotxi.<br>**Juanfer**: Explica que se estuvo mirando el año pasado y que hay bastantes problemas. No sabe si es posible dotar a una zona rural, como es Gardeagotxi, de servicios urbanos. Hay pocas soluciones aceptables y las que hay mediante bombeo son muy caras. Por eso se quedó parado el tema.<br>Se podía retomar el tema del saneamiento, para evitar los olores a la casa de abajo que se quejaba de ello y que es la que más problemas tiene. Haciendo un entubado en esa zona (un tramo relativamente corto solo) con un conector de 40-50cm se podrían evitar los olores en esa casa, pero dar solución a todo el saneamiento de Gardeagotxi es complicado. Con esto no se soluciona el problema, se desvía a una campa que no vive nadie.<br>**Jon Ander**: Se puede proponer una reunión con los vecinos de la zona para ver posibles soluciones.<br>**Vecino**: Dice que así quitas el problema a uno y se lo pones a otro porque esa campa tiene un dueño. La solución que se propuso en otra asamblea fue poner una depuradora pequeña.<br><br>**Juanfer**: Añade que esta es una zona rural y que por lo tanto, les corresponde a los propietarios hacerlo. Ahora pluviales y fecales van al mismo colector y habría que separarlo también.<br><br>**Vecino**: En el regato hay un tramo entre los edificios nº11 y 13 que no tiene barandillas y es peligroso para los niños.<br>**Jon Ander**: Se puede incluir entre las propuestas a realizar que se van a enviar a la Agencia Vasca del Agua, porque los márgenes del río son competencia suya hasta 5m y para instalar cosas hasta 18m. Es un proceso lento, pero se ha mejorado mucho porque la Agencia Vasca del Agua |

| | | |
|---|---|---|
| | eskumenak partekatu behar dituela, ez dituelako beharrezko baliabideak. Umeak ez erortzeko behin behineko konponbideren bat bilatuko da.<br><br>**Juanfer:** Bere ustez jabetza pribatua da eta, beraz, ezin da ezer egin.<br><br>**Auzokoa:** Idatzi bat egin zuen Irukurutzetako edukiontziak alda zitzaten, bere etxearen aurrean jarri dituztelako eta ezin duelako lorik egin. Hara eraman dituzte beste auzokide batzuk gogaitzen zituztelako. Galdetu egin du zer egin daitekeen konpontzeko, esan diotenez, ez direlako lekuz aldatuko.<br>**Juanfer:** Edukiontzia etxebizitzetatik urrunen dagoen kokalekuan dago orain eta horregatik eraman zen hara.<br><br>**Auzokoa:** Irukurutzetan aparkaleku gutxi dago eta, hiru gurutzeen aurrean daudenetan marrak ez direnez ikusten, autoek txarto aparkatzen dute, espazioa behar bezala aprobetxatu gabe.<br><br>**Auzokoa:** Abasoloko pabiloien aurrean uholdea badago eror litezkeen 5 edo 6 makal daude eta, hori gertatzekotan, ibaia buxa daiteke.<br><br>**Auzokoa:** Galdetu egin du argiteria publikoa ipin ote daitekeen Launtxun. Lau kale-argi baino ez daude bi etxeen artean.<br>**Juanfer:** Esan duenez, ezin dira bideak horrela argiztatu, mendi osoa argiztatzen delako. Beldiorako edota Santa Luziarako bide osoak ere gauza bera eska lezakete.<br><br>**Auzokoa:** Gardeagotxirako bidean, Agirre baserriaren beheko aldean, 4 zulo handi daude. Garai batean auzokoak estaltzen zituen betoiarekin, baina gaur egun ezin du.<br>**Natxo:** Jasota utzi du. Egoera txarrean dagoen beste baserri-bide bat izan da. | se ha dado cuenta que debe de compartir competencias porque ella no tiene los medios. Se mirará una posible solución provisional que evite que puedan caerse los niños.<br>**Juanfer**: Cree que es una propiedad privada y entonces no se puede hacer nada.<br><br>**Vecino**: Hizo un escrito para que volviesen a cambiar los contenedores de Tres Cruces porque se los han puesto delante de su casa y no puede dormir. Los han movido ahí porque molestaban a otros vecinos. Pregunta a ver que puede hacer para solucionarlo porque le han comentado que no se van a reubicar.<br>**Juanfer**: El contenedor está ahora en el punto más alejado de todas las viviendas de la zona y es por eso que se ubicó ahí.<br><br>**Vecino**: Hay pocos aparcamientos en Tres Cruces, y en los que están enfrente de las tres cruces como no se ven las rayas, los coches aparcan mal desaprovechando espacio.<br><br>**Vecino**: Enfrente de los pabellones de Abasolo hay 5 o 6 chopos que en caso de riada podrían caerse y colapsar el río.<br><br>**Vecino**: Pregunta si hay posibilidad de poner alumbrado público en Launtxu. Sólo cuatro farolas entre las dos casas.<br>**Juanfer**: Dice que no se pueden alumbrar los caminos de esa manera porque se está alumbrando todo el monte. De la misma manera puede pedirlo Beldio y todo el camino de Santa Lucia.<br><br>**Vecino**: En el camino de Gardeagotxi debajo del caserío de Aguirre hay 4 baches grandes. Antes los tapaba el vecino con hormigón pero ahora no puede.<br><br>**Natxo**: Se toma nota. Es otro camino rural en mal estado. |

| | | |
|---|---|---|
| | **Joseba**: Bide hori oso txarto dago, oso-osorik konpondu behar da. Adabakiekin ezer gutxi egin daiteke.<br><br>**Auzokoa:** Gardeagotxitik Launtxura doan sarbidean, uraren etxolaren parean dagoen zubiaren alde batean hesi bat jarri zen, baina bestean ez. Arriskutsua da, bizikletaz doazen umeak jausi egin daitezkeelako.<br><br>**Auzokoa:** Gardeako jaiei buruz galdetu du.<br>**Amets**: Batzarra bukatzean, jaien inguruko batzar monografikoa egiteko aukera dago, oraindik ez delako proposamenik jaso.<br><br>**Auzokoa:** Parkean, egoitzaren aurrean pedal berriak jartzeko eskatu du, denak tolestuta daudelako eta herdoiltzen ari direlako.<br><br>**Auzokoa:** Umeen parkeetan eta beste parkeetan estalkiak jartzeko planari buruzko informazioa eskatu du.<br>**Jon Ander:** Aretako batzarrean gaia jorratu zen. Parkeetan estalkiak ipintzearena Osoko Bilkuran jorratu zen eta zenbait parketan estalkiak ipintzeko azterlana egitea onartu. Zerbitzu teknikoek estalkia ipintzeko zenbait parke aztertu zituzten, nonbaitetik hasi behar delako. Aretatik hastea pentsatu zen. Badago azterlan bat eta aurrekontu bat Aretarako, baina asmoa da beste parke batzuekin jarraitzea eta urte bat baino gehiagoan bideratzeko ekintza izatea. Ez da auzoen arteko borrokarik piztu nahi. Estalkiek badituzte euren abantailak eta euren desabantailak eta badaude gaiaren inguruko iritzi desberdinak; nola estali, zer estali… (jolas-eremua, bankuak…). Gainera nahiko garestia da: Aretako aurrekontuak 92.000 € dauzka (gutxi gorabehera, 300 € metro koadroko); 30 parke edo eremu estal litezkeela esan zen, beraz, guztira, 3 milioi euro lirateke.<br>**Txaro:** Azaldu egin du oraindik ez dutela | **Joseba**: Ese camino está muy mal, y hay que arreglarlo entero. Con parches poca cosa se puede hacer ya.<br><br>**Vecino**: En la incorporación de Gardeagotxi a Launtxu donde la caseta del agua, hay un puente en el que en su día se puso una valla en un lado y en el otro lado no. Es peligroso para los niños que van en bicicleta que se pueden caer.<br><br>**Vecina**: Pregunta por las fiestas de Gardea.<br>**Amets**: Al terminar la asamblea se puede quedar para hacer una asamblea monográfica de fiestas ya que todavía no ha habido ninguna propuesta.<br><br>**Vecino**: Pide colocar nuevos pedales o revisarlos en la zona del parque enfrente de la residencia porque están todos torcidos y además se están enroñeciendo.<br><br>**Vecino**: Solicita información sobre el plan para cubrir los parques infantiles y no infantiles.<br>**Jon Ander**: En la asamblea de Areta se habló de este tema. El cubrir los parques fue una moción que se discutió en pleno y se aprobó hacer un estudio para cubrir algunos. Por parte de los servicios técnicos se valoraron algunas posibles ubicaciones a cubrir, porque hay que empezar por algún sitio, y se pensó empezar por Areta. Ya hay un estudio y unos presupuestos para Areta, pero la intención es continuar con otros parques y que sea una acción plurianual. No se quiere que esto sea objeto de una pelea entre barrios. Estas cubiertas tienen sus ventajas y sus inconvenientes, y hay opiniones diferentes sobre el tema, sobre cómo y cuánto cubrir (la zona de juegos, la de bancos,…). Además tiene un coste importante; el presupuesto de Areta es de 92.000€ (unos 300€ el $m^2$) y se habló de 30 posibles áreas a cubrir lo que supone unos 3 millones de euros.<br>**Txaro**: Expone que todavía no conocen estos presupuestos y que están esperando |

| | | |
|---|---|---|
| | aurrekontu horien berri eta zain daudela Gobernu Taldeak eta teknikariek proposamen horiek, abantailak eta desabantailak noiz aurkeztuko. Ez dira horren aurka agertuko.<br>**Alvaro:** Txarok esandako bera aipatu du eta gehitu du bere ustez espazio estaliak beharrezkoak direla hemen dugun eguraldiari erreparatuta.<br>**Laura**: Egitura finkoak dira eta bolumen desberdinekin jolasten da mugimendua eransteko. Deustuko Botikazarren ipini dutena bezalakoak.<br>**Auzokoa:** Bere ustez, erdiguneko parke bakarra estaltzea hobe litzateke, agian.<br><br>**Auzokoa:** Eskatuta zegoen autobideren zubiaren azpian jausten zen urarena konpontzea, zelaira desbideratzeko, bi eserleku dauden eremu batera erortzen delako eta urez betetzen delako.<br>**Juanfer:** Esan du egin gabe dagoela.<br><br>**Auzokoa:** Eskatu egin du Fuentesilaren aurrean, egoitzaren alboan barandak jartzeko, jendea zebrabidetik zeharkatzera behartzeko. Larrazabalerako igoeran horrela konpondu zen arazoa.<br>**Natxo:** Baranda horiek oso arriskutsuak dira. Bilbon jarri egin dira eta lortu dena izan da jendea errepidera lehenago ateratzea, leku beretik zeharkatzeko. Beraz, arriskua handitu da.<br><br>**Auzokoa:** Azaldu duenez, zubibidearen azpitik doazen hodiak, ur edangarria daramatenak oso zaharrak dira, uralitazkoak dira eta apurtu egiten dira.<br>**Juanfer:** Hodi hori oso zaharra da; presio-murriztaile bat jarri zitzaion arazoak ekiditeko eta dagoeneko ez dago matxurarik, baina auzoko batzuk, batez ere, Goikoetxeak eta Tubacexeko azken etxekoak kexu dira ez omen dutelako presiorik. Duten presioa nahikoa da, baina etxeak zaharrak direnez, 3/4 hazbeteko lotuneak dituzte 12 edota 20 etxebizitzatarako eta horrelakoak | a que el equipo de gobierno y los técnicos presenten esas propuestas con sus pros y sus contras. No se van a oponer a ello.<br><br>**Alvaro**: Comenta lo mismo que Txaro, y cree que estos espacios son necesarios con el tiempo que tenemos aquí.<br><br>**Laura**: Son estructuras fijas, en las que se juega con volúmenes distintos para darle movimiento. Como la que han puesto en Botika Vieja en Deusto.<br>**Vecino**: Opina que quizás sería mejor cubrir un parque en el centro solamente.<br><br>**Vecino**: Se había pedido arreglar el agua que cae debajo del puente de la autovía y desviarla al césped, porque cae a una zona donde hay dos asientos y se llena de agua.<br>**Juanfer**: Dice que está sin hacer.<br><br><br>**Vecino**: Pide que se pongan barandillas enfrente del Fuentesila al lado de la residencia para obligar a la gente a que pase por el paso de cebra. En la subida a Larrazabal se solucionó así este problema.<br>**Natxo**: Esas barandillas son muy peligrosas. En Bilbao se han puesto y lo que hace la gente es salir a la carretera antes, para seguir pasando por el mismo sitio, con lo que es más peligroso.<br><br>**Vecino**: Expone que las tuberías de agua potable que van por debajo del puente desde el viaducto hasta Aceros están muy viejas, son de uralita y se rompen.<br>**Juanfer**: Esa tubería es muy vieja, y se puso un reductor de presión que ha quitado problemas y ya no hay averías, pero hay vecinos que se quejan, sobre todo los de Goikoetxe y la última casa de Tubacex, porque dicen que no hay presión. La presión es suficiente, pero las casas son antiguas con acometidas de 3/4 de pulgada para 12 y hasta 20 viviendas, cosa que se utiliza para 1 o 2 viviendas con lo cual no les puede llegar caudal de agua. El |

| | | |
|---|---|---|
| | etxebizitza baterako edo bitarako erabiltzen dira, beraz, ezin zaie behar duten emaria iritsi. Arazoa gehiago da etxebizitzen instalazioa kanpoko hodia baino. Kanpoko hodia konpondu behar da, baina horretarako, aurrekontu-zuzkidura behar da. Presioa eta emaria ez dira gauza bera. Presioa dute, baina ez zaie emaria iristen.<br><br>**Auzokoa:** Jakin nahi du zertan den Hiri Antolamendurako Plan Nagusia.<br>**Jon Ander:** Beste batzar batzuetan ere gaia atera da. Gaur egun indarrean dagoen plana 1995ekoa da. Duela zenbait urte plana berrikusteko saiakera egon zen, baina bertan behera utzi zen. Zerbait jorratzen hasi dira hirigintza batzordean, Udalbatzak aho bateko asmoa duelako lehenbailehen berrikuspenari ekiteko. Garrantzitsua da ondo egitea, aurrekoan gertatu zena gerta ez dadin. Kontua gehiago da nola antolatzen dugun denbora, urteak beharko dituen prozedura delako. Ez da ezer egin.<br>**Alvaro:** Herriak ibilbide-orria behar du, hirigintza plan bat. Lehenik eta behin, elkarrekin ados jarri behar dugu jakiteko zer nolako herria nahi dugun eta ondoren heldu behar zaio planaren fase teknikoari.<br><br>**Auzokoa:** Galdetu egin du noiz eta nola egingo den erabilera anitzetarako aretoa.<br>**Txaro:** Hainbat proposamen dago eta, adostasuna lortzeko, aztertu beharko litzateke zein den onena. Instituzioei aurkezteko proiektu bat egin behar da diru-laguntza eman diezaguten.<br>**Alvaro:** Udalbatzak gaiari buruzko foroa antolatuko du. Hainbat proposamen egingo da, baina ez dira itxiak izango. Printzipioz, udal baliabideekin finantzatzeko moduko proiektu bati heldu behar zaio, Aldunditik edo Eusko Jaurlaritzatik ezer espero barik; gero dirua lortzen bada, hobeto.<br><br>**Jon Ander:** Bertaratutakoei etorri izana eskertu die eta batzarra bukatutzat eman | problema es más de la instalación de las viviendas que de la tubería exterior. La tubería exterior es necesario arreglarla pero hay que dotarla presupuestariamente. No es lo mismo presión que caudal. Tienen presión pero no les llega caudal.<br><br>**Vecino**: Quiere saber cómo va el Plan General de Ordenación Urbana.<br>**Jon Ander**: Es una cuestión que ha salido ya en otras asambleas. El Plan General que está en vigor actualmente data de 1995. Hace unos años se intentó la revisión de dicho plan y se paralizó. Se ha empezado a tratar algo en la comisión de urbanismo porque es voluntad de toda la corporación iniciar su revisión cuanto antes. Es importante hacerlo bien para que no ocurra lo que ocurrió la vez anterior. Es más cuestión de cómo lo encajamos en el tiempo, ya que es un procedimiento de años. No hay nada hecho.<br>**Alvaro**: El pueblo necesita una hoja de ruta, un plan urbanístico. Primero tenemos que ponernos de acuerdo para saber qué pueblo queremos y después ir a la fase técnica del plan.<br><br>**Vecino**: Pregunta cuando y donde se va a hacer la sala multiusos.<br>**Txaro**: Hay diferentes propuestas y lo ideal es estudiar cual es la mejor y llegar a un acuerdo. Hay que hacer un proyecto para presentarlo a las instituciones y que nos puedan subvencionar.<br>**Alvaro**: La corporación va a preparar un foro para hablar sobre el tema. Abra varias propuestas pero no son cerradas. En principio hay que abordar un proyecto que se pueda financiar con recursos propios, sin esperar nada de diputación ni de Gobierno Vasco; si luego viene ese dinero mejor.<br><br>**Jon Ander**: Agradece la asistencia y da por finalizada la Asamblea a las 21:20 horas. |

| | | |
|---|---|---|
| | du 21:20ean. | |

| | |
|---|---|
| ALKATETZA<br>LEHENDAKARITZA | ALCALDIA<br>PRESIDENCIA |